



ESKOLA KIROLERAKO ARAUAK

ARAU OROKORRAK:

1. Guraso Elkartearen Kirol Batzordearen jarduerak duen lehentasun nagusia da, kirol-jarduera batean parte hartu nahi duen ikastolako edozein umek hori egin ahal izatea.
2. Guraso Elkarteak antolatzen dituen eskolaz kanpoko kirol-jardueren artean lehentasuna dutenak honakoak dira: Atletismoa, Saskibaloia, Kirol-hasiera eta ikastolaren idearioaz bat dauden besteak, adibidez Esku-pilota.
3. Atletismoa eta Saskibaloia, lehen hezkuntzako 3. mailatik bigarren hezkuntzako 4. mailara arte hedatzen dira denboraz. Kirol-hasiera, lehen hezkuntzako 1. eta 2. mailetan bakarrik (kirolerako hasiera modura). Kirol-hasieraren funtsezko helburuetako bat izango da, Guraso Elkarteak, lehen hezkuntzako 3. mailatik aurrera, antolatzen dituen kirol-jarduerak ezagutzera ematea.
4. Jarduerak duten muga bakarra, ikastolan eskuragarria den espazio fisikoa da. Kontuan hartu behar da frontoia ez dela jabetzan den espazioa eta urtero berrikusi beharko dela duen eskuragarritasuna.
5. Espazio fisikoan eguna eta ordua esleitzea, honekin batera doan koadrante estandarrean aurrez esleitu den taldeak ematen du.
6. Espazioaren eskuragarritasuna balego, behin espazioak esleituz lehentasundunak irizitako jardueretarako, beste jarduerak proposatu ahalko dira.
7. Lehentasundun kirol batean inskribatua den ume batek ikastolako taldeen arteko bateren baten tokirik ez balu (kupoa betea egoteagatik edo jarduera bideragarria ez izateagatik), lagundu egingo zaio jarduera horren garapenerako aukerak bila ditzan beste ikastegi batean. Kasu honetan:
 - a. Zentro modura inplikazioa osoa izango da, zeren eskabidea ikastolaren beraren izenean zuzenduko baita.
 - b. Beste ikastegi batean tokia aurkitzearen kasuan, jardueraren kostuak gainditzen baldin badu kirol-jarduerak ikastolan duten kostua, IGERi proposatuko zaio (aurrekontuzko bere posibilitateen barruan) tartea osoro edo partzialki diruz laguntzea.
8. Ikastolan ez baina inguruko ikastegietan presentzia baduten kirolean ume interesdunak badaude, aita edo ama bakoitza izango da ikastegian inskripzioa zuzenean egingo duena.



ESKOLA KIROLERAKO ARAUAK

9. Ume bat kirol talde batean sartzeko honako irizpideak hartuko dira kontuan, lehentasunezko hurrenkeran:
 - a. Kirol hautatuan erosotasuna izatea.
 - b. Jadanik bertan eta ibilbidea eginik dauden taldeak ahal denik eta gutxien aldatzea.
 - c. Generoan koherentea den talde batekin erosotasuna izatea, beti ere emaitzako talde orekatua bada adinetan (zeren horixe baita, azken urteetan, taldeei jarraitasunik handiena ematen diena).
10. Umea talde jakin batean inskribatzen bada ere, azken esleipena Kirol Batzordearen erantzukizuna izango da, agiri honetan kirol-jarduera bakoitzarentzat ezarri den lehentasunaren arabera.
11. Ezarritako epeen barruan inskribatzen baldin badira, lehentasuna emango zaio integratzeari baita talde ezarrien bikoiztura beharrezkoa bada ere (geroagoko puntutan taldeentzat markatzen diren mugen barruan).
12. Ezarritako epetik kanpo egiten bada inskripzioa, esleipena egingo da ikastolan dauden talderen baten batean, beti ere kupoa bete egin ez bada.
13. Ahalegina egingo da, orduen esleipenak, ikastolatik irteteko ordutik ahalik eta gertuan izan daitezen, lehentasuna emanez ume adinez txikienei.
14. Kirol kolektiboetan taldeko parte-hartzaileen gehienezko muga, haiei dagokien federazioak emango du.
15. Gutxieneko muga izango da, dagokion federazioak eskatzen duen kopuruaren eta, Guraso Elkarteak, taldearen bideragarritasun ekonomikorako muga modura markatu duenaren arteko nagusia.
16. Kirol kolektibo batean izena denetarako (entrenamendua eta partiduak) ematen duten umeek lehentasuna izango dute entrenamenduetarako bakarrik izena ematen dutenekiko. Bakarrik onartuko da partiduetan parte hartzen ez duten umeen inskripzioa erantsi egiten zaien taldeak baldin badu parte-hartzaileen kopuru bat, Kirol Batzordearen aldetik kirol horretarako egokia iritzi dena baino handiagoa, eta markaturiko gehienezkoa baino txikiagoa.
17. Minusbalioetasun fisikoa duen edozein umek izena eman ahalko du jardueretarako, muga bakarrak izanik federazioko arauak eta umeak dueneko minusbalioetasuna bera.
 - a. Aitek eta amek, edozein kasutan, idazki bat sinatu beharko dute bereganatuz jardueraren balizko ondorioetarako erantzukizun guztia eta horretatik salbuetsiz bai ikastola eta baita IGE eta entrenatzaileak ere.



ESKOLA KIROLERAKO ARAUAK

18. Adimen-minusbaliotasuna eta, hortaz, begirale baten presentzia behar duen edozein umek izena eman ahalko du jardueretarako, muga bakarrak izanik federazioko arauak eta umeak duen dueneko minusbaliotasuna bera, honako kontsiderazio hauek eginik:
 - a. Gutxienez ere, umearen guraso edo tutoretako bat entrenamendu eta partidu eta/edo txapelketetan egon beharko du, umearen jarreraren erantzulea izanik.
 - b. Aitek eta amek, edozein kasutan, idazki bat sinatu beharko dute bereganatuz haien seme edo alabak, berarengan edo hirugarren pertsonengan, duen edozein jarduera eta baita horren balizko ondorioetarako erantzukizun guztia, horretatik salbuetsiz bai ikastola eta baita IGE eta entrenatzaileak ere.

ARAU BEREZIAK SASKIBALOIA

1. Talde bateko kideen gutxienerako kopurua 9koa izango da.
2. Egoki irizten den talde bakoitzeko kideen kopurua 12koa izango da.
3. Taldeko kideen gehienezko kopurua 15ekoa izango da. Ez ohiko eran, taldeko 17 umeraino onartu ahal izango dira taldeko, Kirol Batzordeak aurretiaz onartuz eta Eskola Kirolaren aldeko baimenez.
4. Kopurua 15etik gorakoa bada, txandatu beharko dira partidura doazen umeak, entrenatzailearen erabakien arabera, partiduko 15eko gehienezko batz.
5. Arau hauek aldatuko dira federazioaren beraren arauetan emaniko aldaketekin.

ARAU BEREZIAK ATLETISMO

1. Parte-hartzaileen gutxienerako kopurua 11koa izango da.
2. Begirale bakoitzeko umeen gehienezko kopurua 15ekoa izango da.
3. Kopurua 15etik gorakoa bada, umeen kopurua eta 15 arteko zatiketaren emaitza gorantz biribiltzearen emaitzazko besteko begiraleak egon beharko dira.
4. Arau hauek aldatuko dira federazioaren beraren arauetan emaniko aldaketekin.



ESKOLA KIROLERAKO ARAUAK

ARAU BEREZIAK KIROL-HASIERA

1. Parte-hartzaileen gutxieneko kopurua 11koa izango da.
2. Begirale bakoitzeko umeen gehienezko kopurua 13koa izango da.
3. Kopurua 13tik gorakoa bada, umeen kopurua eta 13 arteko zatiketaren emaitza gorantz biribiltzearen emaitzazko besteko begiraleak egon beharko dira.
4. Jarduera hau, lehen hezkuntzako 1. eta 2. mailetakoko ikasleentzat bakarrik izango da.

ARAU BEREZIAK ESKU-PILOTA

1. Parte-hartzaileen gutxieneko kopurua 6koa izango da.
2. Begirale bakoitzeko umeen gehienezko kopurua 8koa izango da.
3. Kopurua 8tik gorakoa bada, umeen kopurua eta 8 arteko zatiketaren emaitza gorantz biribiltzearen emaitzazko besteko begiraleak egon beharko dira.

ARAU BEREZIAK FUTBOLA 5

1. Talde bateko kideen gutxieneko kopurua 10ekoa izango da.
2. Egoki irizten den talde bakoitzeko kideen kopurua 13koa izango da.
3. Taldeko kideen gehienezko kopurua 13koa izango da.
4. Jarduera hau, lehen hezkuntzako 3. eta 4. mailetakoko ikasleentzat bakarrik izango da.
5. Arau hauek aldatuko dira federazioaren beraren arauetan emaniko aldaketekin.
6. Jarduera honek lehentasunik ez duenez gero, berau jarraitzea keta baita antola daitezen taldeen kopurua ere baldintzaturik egongo da, urtero, espazioen eskuragarritasunera.
7. Umeen eskaerak plazak baino gehiago izatearen kasuan (lehenagoko irizpideekin bat etorritik), lehentasuna izango dute lehenagoko taldean kide zirenek.

ORDEZKARIAK HAUTATZEA

1. Ordezkarria hautatuko da taldeko aita-amen artean urteko lehen batzarrean; ahal delarik borondatezkoa izan daiteke eta, horretara ez bada, zozketa bidez.



ESKOLA KIROLERAKO ARAUAK

KIROL BATZORDEA

1. Talde denetako Ordezkariez osatuko da, horietako bat izango delarik Presidentea.
2. Presidentea hautatuko da Kirol Batzordearen kideen artean; ahal delarik borondatezkoa izan daiteke eta, horretara ez bada, zozketa bidez; indarraldiak, gutxienez, bi urte iraungo du eta, gehienez (norberak eskaturik), lau.
3. Presidenteak Kirol Batzordea ordezkatzeko du Guraso Elkartearen aurrean.

KIROL EKIPAMENDUAK

1. Kirol ekipamenduak aurrekontuaren kargura erosten dira eta, hortaz, Guraso Elkartearen jabetzakoak dira.
2. Ume batek, bidezko arrazoirik ez bada (Kirol Batzordearen iritziz), azken eskola eguna baino lehenago ekipamendu bat ematen badu, haren familiak 50€ ordaindu beharra ekarriko du, zuzenean ez ohiko kuota modura kobratuko dena ikasturtearen amaieran.

KUOTAK

1. Kuota izango da, urtero, jardueraren (entrenamenduak, partidu/lehiaketan jarraipena eta arbitrajea) ondoriozko gastuak (haztapenen arabera) ordaintzeko beharrezkoa.
2. Kuotak hiru hilero kobratuko dira azaroa, otsaila eta maiatza hileetako lehen hamabostaldian.
3. Jarduera baten baja-eskabideak unean uneko hiruhilekoaren azken hamabostaldian egin behar dira.
4. Azken kuota bi hilekoa bakarrik izango da.



ESKOLA KIROLERAKO ARAUAK

IZEN EMATEAK

1. Talde batean jadanik inskribaturik dauden umeentzat:
 - a. Ikasturte bakoitza maiatza amaitu aurretik, Kirol Batzordeak berrikusiko du bertan diren taldeen egoera, funtsean, balizko kategoria-aldaketa eta taldeon bategite/banantzeari dagokienez.
 - b. Taldeen proposamena onetsia izanik, ordutegiaren egokitzea egingo da, aurretiaz ezarriak diren irizpideen arabera.
 - c. Ekainean komunikatuko zaie umeen aita eta amei, Ordezkararen bidez, haien taldea geratuko den egoera (konposizioan eta ordutegian).
 - d. Aurkakoa idatziz komunikatzen ez bada, uztailaren 1a baino lehenago iritziko da umeak jarraituko duela jardueran.
 - e. Irailaren amaieran eratuko dira behin betiko taldeak eta ordutegiak, inskribatu diren ume guztiekin.
 - f. Uztailaren 1a baino geroago komunikatzen bada umearen baja, jardueraren lehen hiruhilekoaren kuota kobratuko da, salbu eta baja bada, ekainean, behin betikoari dagokionez aurrez ikusi den ordutegian aldaketa bategatik. Kasu horretan ez da ezer kobratuko.
2. Taldeen kide berrientzat:
 - a. Ikasturtearen hasiera bidaliko zaie ume guztiei urtean den kirol-eskaintza, Estiloko Eskuliburuarekin eta Kirol Araudiarekin batera (edo, gutxienez, ikastolako web-ean horietako eskuragarritasuna adieraziko da).
 - b. Jarduera batera inskribatzeak suposatzen du hiruhileko lehen kuotaren ordainketa automatikoa, salbu eta jardueraren ordutegia aldatzen bada aurreikuspenari dagokionez. Kasu horretan, umeak baja egiten badu ez da ezer kobratuko.
3. Kirol Batzordeak iragarriko ditu behin betiko ordutegiak eta taldeak irailaren azken astean ikastolako iragarkien ohean.
4. Ume batek, gaixotasunagatik, ezin badu entrenamenduetara joan elkarren segidako hiru asteko gutxieneko denboraldian zehar, ahal denik eta lasterren komunikatu beharko dio taldearen ordezkariari eta, baita, ikastolako Idazkaritzari ere. Eraginaren peko hiruhilekoaren kuota osorik kobratuko da eta aurretiazko sendagilearen frogagiriaz bakarrik itzuliko da entrenatu ezin izan duen denboraldiari dagokion zatia. Modu berean, taldeko ordezkariari komunikatu beharko zaio umea entrenamendura berriro joaten deneko data.



ESKOLA KIROLERAKO ARAUAK

KIROL KOLEKTIBOEN MAHAIKO ETA KRONOMETRAJEZKO GASTUAK

1. Ikasturtearen hasieran izango den kirol taldearen batzarrean, taldeak hautatu beharko du bi aukeren artean, ikastolan diren partiduetan mahaiko eta kronometrajezko zereginak egiteko:
 - a. Konpromiso bat egon dadila zeregin hauek aitek eta amek berek egin dezaten (bai horretarako prest daudelako edo bai horiek egiteko txanda bat jartzen delako). Hau da lehentasuna duen aukera, bai konpromisoaren ikuspegitik eta baita umeei irakatsi nahi zaizkien baloreak onartzearen ikuspegitik ere.
 - b. Zereginok kanpoko pertsonalak egin ditzatela, ordainketa baten truke.
2. Kanpoko pertsonalaren aukera hautatuz gero, taldeak bereganatu beharreko kostu osoa hiru hileroko 60 €-koa izango da (urtero berrikusgarria). Kostu hau zatituko da taldea osatzen dutenen artean eta aurretiaz ordainduko da, jardueragatik kuotarekin batera eta modu berean.
3. Talde baten aldetik konpromisoa bada eta honek konpromisoa betetzen ez badu, automatikoki jarriko da kanpoko pertsonalaren aukera (horrez gain, hiruhilekoaren kostu osoa ordaindu behar izanik).

Bilbon, 2012/10/02

Artxandape Ikastolako Guraso Elkartearen Kirol Batzordea